



EUSKADIKO OSTALARITZA-SEKTORERAKO LAGUNTZAK DEITZEN ETA ARAUTZEN DITUEN TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUAREN AGINDUAREN LABURPENA.

Norentzat da laguntza hau?

COVID-19aren pandemiak ekarritako zailtasunen testuinguruan, Lehendakariaren 38/2020 Dekretuak ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezarri zuen, hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuetako jantokietan izan ezik. Horren ondorioz, **zuzeneko galera ekonomikoak izan dituzte Euskadin ostalaritzaren sektore horretan diharduten langile autonomoek edo soldatapekoek mikroenpresek eta enpresak txikiak**. Galera horiek **arintzea** da, hain zuzen ere, laguntza-lerro honen xedea.

Laguntzak eska ditzakete artikulua honetan aipatutako erakundeek, baldin eta beren jarduera tipologia honetakoa bada:

- a) Jatetxe-zerbitzuak: jatetxeak, **tabernak, kafetegiak eta tankera horretako establezimendu finkoak**, publikoari oro har irekiak, **tokian bertan kontsumitzeko** otorduak eta edariak eskaintzen dituztenak modu ohikoan eta profesionalean.
- b) **Zehazki**, arau honen xede dira ekonomia-jardueren sailkapen nazionalako «I» ataleko jarduera hauek, «Jaki- eta edari-zerbitzuak» mailakoak:

EJSN MAILA 56: Jaki- eta edari-zerbitzuak

EJSN TALDEA 561: Jatetxeak eta janari-postuak

- EJSN MOTA 5610: Jatetxeak eta janari-postuak, salbu eta jardueraren xede nagusi gisa **janaria etxez etxe banatzeko edo bezeroak bertan jasotzeko zerbitzua dutenak**.

EJSN TALDEA 563: Edari-establezimenduak

- EJSN MOTA 5630: Edari-establezimenduak eta, **gainera, dantza-aretoak edo diskotekak**.

Arau honen **esparrutik kanpo uzten dira espresuki** honako jarduera hauek:

EJSN TALDEA 562: Aldez aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako eta beste jaki-zerbitzu batzuk

- EJSN MOTA 5621: Aldez aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako



EJSN MOTA 5629: Beste jaki-zerbitzu batzuk, salbu eta jarduera-etetearen eraginpean geratu diren zentro edo espazioetan aritzen direnak.

Laguntzetara bideratutako baliabide ekonomikoak.

Guztira, **30.450.000 euro** bideratuko dira laguntza hauetara.

Pertsona eta onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte 2020ko urriaren 25ean:

- a) Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala eta lan-zentroa EAEn egotea.
- b) Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak etendako **ostalaritzako jarduera batean aritzea**.
- c) Langile autonomoen edo soldatapekoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu aurretik.

Eta a) eta b) apartatuetan islatutako **horretan jarraitzea** jardueraren etenaldia amaitu eta **ondoko lau hilabeteetan**. Horrez gain, alta emanda jarraitu beharko dute ekonomia-jardueren gaineko zergan epe horretan bertan.

Horrez gain, beste **baldintza hauek ere bete** beharko dituzte:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- c) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu ez izana, zigor penal edo administratibo baten ondorioz, edo ez egotea horretarako ezgaitzen duen lege-debekuren batean sartuta, barnean hartuta sexuagatiko diskriminazioa eragiteagatik gertatutakoak.
- d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duten gainerako egoeretan.

Zenbatekoak dira laguntzak?

Itzuli beharrik gabeko laguntzak dira, eta honela banatuko dira:

- 1-3 langileko establezimenduak: **3.000 euro**
- 4-10 langileko establezimenduak: **3.500 euro**
- 10 langiletik gorako establezimenduak: **4.000 euro**



Kasu guztietan, **autonomoak zein soldatapeko langileak hartuko dira kontuan** langileen kopurua kalkulatzeko.

Nola eska daitezke laguntzak?

Eskaerak egiteko epea azaroaren 19an hasi eta abenduaren 10ean amaituko da.

Eskabide bat aurkez daiteke lantoki edo establezimendu bakoitzeko. Horretarako, eskabidea eta gainerako inprimakiak bete behar dira, bai eta erantzukizunpeko adierazpen bat ere, non puntu hauek aipatuko diren:

- a) **Eskatzailearen datuak**, zer taldetakoa den adierazita: autonomia, mikroenpresa, enpresa txikia edo nortasun juridikorik gabeko elkarte, kasu horretan kideetako bakoitza eta bere datu pertsonalak banakatu beharko ditu. Datuen artean espezifikoki adierazi beharko da laguntza eskatzen den establezimenduaren kokapena eta izena, eta zehaztu beharko da ekonomia-jardueren gaineko zergaren zer epigrafetan dagoen alta emanda establezimendu hori.
- b) Erakunde onuradun izateko **baldintzak betetzen** dituela.
- c) Pertsona edo erakunde eskatzailea ez dagoela onuradun izatea eragozten duten inguruabarretako batean.
- d) Eskatzailea enpresa bat baldin bada, mikroenpresa edo enpresa txiki gisa sailkatzeko baldintzak betetzen dituela.
- e) 2020ko urriaren 25ean zegoen lanpostu-zerrenda osoari buruzko datuak, autonomoak zein soldatapekoak barne, eta informazio hori gizon eta emakume kopurutan banakatuta. Eta laguntza eskatzen den establezimendu edo lantokiko langile bakoitzaren gizarte-segurantzako zenbakia adierazita.
- f) Laguntzaren xede den lantokia edo establezimendua EAEn egotea eta jardueran aritzea 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu aurretik.
- g) Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo bidezko zehapen administratibo edo penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.
- h) Ez dagoela itzulketa- edo zehapen-prozeduren batean sartuta laguntza edo dirulaguntzen esparruan.
- i) Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoen onuradun izateko debekurik.
- j) Onuradunaren jarduera nagusia ez dela jakiak edo edariak etxez etxe banatzea edo bezeroek establezimenduan bertan jasotzea (*delivery* eta *take away*)



Gainera, Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, Ogasun eta Ekonomia Saileko **Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan agertu behar du** erakunde eskatzaileak.

Eskabidea **egoitza elektronikoan lor eta bete** daiteke: http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/ayuda_subvencion/2020/11092

Laguntza-eskaera bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan aurkez daiteke. Eskaera aurkezteak oinarrietan definitutako baldintza guztiak espresuki eta formalki onartzea dakar.

Eskatzailea pertsona fisikoa bada, aurrez aurre aurkeztu ahal izango du eskabidea Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lurralde-bulegoetan edo Eusko Jaurlaritzaren jendaurreko arretarako bulegoetan –Zuzenean–, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabilita ere. Horretarako, aurretiko hitzordua eskatu beharko dute, pandemia-aldian indarrean dauden baldintzetan, bulego horietan aurrez aurreko izapideak egiteko.

Dirulaguntza ordaintzeko modua

Aldi bakarrean ordainduko zaie dirulaguntza pertsona onuradunei, dirulaguntza **eman eta onartu ondoren**. Interesdunek ez badiote dirulaguntzari espresuki uko egiten jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar egunetan, onartu dutela ulertuko da.

Ebazpena eta dirulaguntzaren ordainketa.

Eskabideak bata bestearen ondotik ebartziko dira, eskabidea guztiz formalizatu zen unearen arabera, eta gehienez ere hiru hileko epean, eskabidea aurkezteko epea guztiz amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ebazpenak banan-banan jakinaraziko zaizkie interesdunei, hiru hilabeteko epean gehienez ere, eskabidea guztiz formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Interesdunei jakinarazpenaren argitalpenaren abisua bidali ahal izango zaizkie, eskabidean jarritako telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek inoiz ez dira jakinarazpentzat hartuko.

Erakunde onuradunen betebeharrak.

- a) Enpresa-jarduerari berriz ekitea alarma-egoeraren esparruan xedatu ziren ostalaritzako jarduera eteteko neurriak indargabetzen direnean, eta 3.3. artikuluan adierazitako kolektibo onuradunetako batean mantentzea **gutxienez lau hilabetez**, jarduerari berriz ekiten zaionetik.



- b) Jardueran aritzea, gutxienez, lau hilabetez jarraian, establezimenduaren jarduera-etetea amaitzen denetik aurrera zenbatuta.
- c) Laguntza emateko eta erabiltzeko **baldintzak eta betekizunak betetzen jarraitzea** eta jarduera gauzatzen jarraitzea.
- d) **Emandako dirulaguntza onartzea**. Puntu honi dagokionez, dirulaguntza esleitzen zaiola jakinarazten duen adierazpena jaso eta hamar eguneko epean onuradunak berariaz eta idatziz uko egin ezean, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.
- e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz.
- f) **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean** (otsailaren 18ko 4/2005) eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako Lege Organikoan (martxoaren 22ko 3/2007) **xedatutakoa betetzea**, eta aipatutako 4/2005 Legeak Administrazioarekin kontratuak, hitzarmenak edo laguntzak dituzten enpresei ezartzen dizkien betebeharrak beren gain hartzea.

Bateragarriak al dira beste laguntza batzuekin?

Emandako laguntzak **bateragarriak izango dira** beste administrazio publikoek eta/edo erakunde pribatuek emandako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Ikuskatu eta egiaztatzeko lanak

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ikuskatzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen lanak gauzatu ahalko ditu, eta enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio gehigarri guztia eman beharko dute.

Datu pertsonalen tratamendua

Eskatzaileen datu pertsonalak «Turismo-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira. Honako arau hauen arabera tratatuko dira datu horiek: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.